

# Psikomotrizitatea Eskolan aztertzen du Jakingarriak aldizkariaren azken aleak

2006/11/27

Mondragon Unibertsitatearen HUHEZI fakultateko Dokumentazio Zentruak **Jakingarriak** aldizkariaren azken alea kaleratu du, 59.a. Ale horren gai monografikoa da "*Psikomotrizitatea Eskolan*", eta hor jasotzen ditu hainbat adituren artikulua: Juan Carlos Polentinos, M<sup>a</sup> Jose Intxausti, Elena Herran eta Bernard Aucouturier.

Juan Cruz Polentinosok berak aitortzen duen bezala, monografiko horren helburua da argitasun pitin bat egitea hezitzaileen artean ematen ari den eztabaidan, eta bide batez, hainbat gogoeta teoriko egitea haurren egintzen zentzuaz, mugimenduaren garrantziaz eta hezkuntzako psikomotrizitate-praktikan geure burua egokitzeaz.

Monografikoarekin batera, aldizkariak aurkezten ditu hainbat liburu, zerrendatzen ditu hainbat artikulua aipagarri eta aipatzen ditu hainbat esaldi kontuan hartzekoak. Baliabideen txokoan, berriz, Jose Ramon Vitoria irakasleak "*La vuelta al mundo en 25 canciones*" liburua eta CDa gomendatzen ditu.

## Irakur Gida

Haur Liburu Mintegiak, ostera, **Irakur Gida** argitaratu du, 2005. urtean Haur eta Gazte literaturan kaleratu ziren euskarazko liburu onenen selekzio bat. Betiko moduan, liburu ia guztiak irakurri ondoren, taldeak baloratu eta sailkatu egin ditu. Gurasoek, irakasleek eta liburuzainek benetan estimatuko dute gida hau.

Bai Jakingarriak eta baita Irakur Gida EAEko ikastetxe guztietan banatuko da, eta Nafarroako eta Iparraldeko ikastoletan. Guztira 1.200 ale.

